


Langabezia-tasak % 9,2 egin du behera eta 7.200 landun gehiago daude Euskal Autonomia Erkidegoan 2019ko hirugarren hiruhilekoan

Langabezia-tasak behera egin du azken urtean, % 9,5etik % 9,2ra

Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren 2019ko hirugarren hiruhileko datuetan ikus daiteke 955.100 pertsona landun daudela, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 7.200 landun gehiago dagoela (+% 0,8), EUSTATEk landutako datuen arabera. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa % 9,2koa da, 2019ko bigarren hiruhilekoan baino ehuneko 0,4 puntu txikiagoa (% 9,6). Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa % 56,9koa izan zen 2019ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko bi hamarren handiagoa.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatze Inkesta

Lurraldeen arabera, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian hazi da gehien okupazioa, 4.300 pertsona landun gehiagorekin; ondoren, Gipuzkoan 2.400 landun gehiagorekin eta, azkenik, Araban 500 landun gehiagorekin. Hiriburuei dagokienez, Bilbon eta Donostian okupazioa hazi egin da, 500 landun gehiagorekin; aitzitik, Gasteizen okupazioak behera egin du, 100 landun gutxiagorekin.

Generoari erreparatuta, okupazioaren igoerarik handiena emakumeen artean izan da, aurreko hiruhilekoan baino 3.700 emakume landun gehiago daude, eta gizonen artean, berriz, 3.500 landun gehiago.

Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitateko pertsona landunen kopuruak gora egin du, 5.500 landun gehiagorekin, eta atzerriko nazionalitatea duten 1.700 landun gehiago daude.

Okupazioak sektore guztietan egin du gora, eraikuntzan izan ezik

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria landunak gora egin du zerbitzu-sektorean, 7.100 landun gehiagorekin, industrian, 1.500 landun gehiagorekin, eta lehen sektorean, 400 landun gehiagorekin. Aitzitik, behera egin du eraikuntzan, 1.800 landun gutxiagorekin.

Okupazio-tasak —16 eta 64 urte arteko pertsona guztien artean dauden pertsona landunen ehuneko gisa kalkulatuta— sei hamarren egin du gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 69,2koa da. Tasa hori % 73,1ekoa da gizonen artean eta % 65,3koa emakumeen artean.

Amaitutako ikasketen mailari dagokionez, okupazio-tasak ehuneko 1,2 puntu egin du gora bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, % 62,5 arte. Lehen mailako ikasketak dituzten —edo gutxiago— pertsonen artean okupazio-tasa ez da aldatu (% 60,2) eta ehuneko 0,2 puntu jaitsi da goi-mailako ikasketak egin dituztenen artean, % 83,6 izanik.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasarik handiena Espainiako nazionalitateko pertsonen artean dago, % 70,3; atzerriko nazionalitatea dutenen artean, aldiz, okupazio-tasa % 57,8koa da.

Lurralde Historikoen arabera, Gipuzkoak du okupazio-tasarik handiena, % 71,5ekoa, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta ehuneko 0,9 puntu egin du gora; ondoren, Araba dator, % 70eko okupazio-tasarekin eta 0,7 puntuko igoerarekin; azkenik, Bizkaian okupazio-tasak ehuneko 0,4 puntu egin du gora eta % 67,5ean dago.

Pertsona guztiak aktibo edo landun dituzten etxeen kopuruak gora egin du, 6.100 gehiago dira

2019ko hirugarren hiruhilekoan, kalkulatu da Euskal Autonomia Erkidegoan 893.200 etxe daudela. Horietako heren batean ez dago pertsona aktiborik; hamarretik seitan etxeko pertsona aktibo guztiak landunak dira, aurreko hiruhilekoan baino 6.100 familia gehiago; haatik, 28.100 etxetako pertsona aktibo guztiak lanik gabe daude, aurreko hiruhilekoan baino 700 etxe gutxiago.

2019ko hirugarren hiruhilekoan langabezia-tasa % 9,2koa da, aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu txikiagoa

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019ko hirugarren hiruhilekoan, 97.100 langabe daude, hau da, 97.100 pertsona ari dira lana bilatzen, bilaketa-kudeaketa aktiboa egiten eta, gainera, lan egiteko prest daude. Aurreko hiruhilekoan baino 3.200 gutxiago dira. Hiruhilekoan 47.400 gizonezko langabe daude eta aurreko hiruhilekoan baino 400 gutxiago dira; bestalde, 49.800 emakumezko langabe daude, aurreko hiruhilekoan baino 2.600 gutxiago.

2019ko hirugarren hiruhilekoko datuetan ikus daitekeenez, langabezia-tasa % 9,2koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,4 puntu txikiagoa. Gizonezkoen arteko langabezia-tasa % 8,6koa da (ehuneko 0,1 puntu egin du behera) eta emakumezkoen artekoa %9,9koa da (ehuneko 0,6 puntu egin du behera). Adinen arabera, gazteen langabezia-tasak jarraitzen du handiena izaten, % 20,1ekin, baina ehuneko 0,5 puntu egin du behera aurreko hiruhilekoaren aldean.

Ikasketei dagokienez, langabezia-tasak behera egin du gehienez bigarren mailako ikasketak amaitu dituzten pertsonen artean, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,4 puntu langabe gutxiago daude, eta horien artean langabezia-tasa % 9,7koa da; aitzitik, lehen mailako ikasketak edo goi-mailako ikasketak amaitu dituztenen artean langabezia-tasak gora egin du, ehuneko 0,1 eta 0,5 puntu, eta langabezia-tasa % 14koa eta % 6koa da, hurrenez hurren.

Langabeziak behera egin du Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean (aurreko hiruhilekoan baino 3.700 gutxiago dira) eta guztira 75.900 langabe dira; atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, aldiz, langabeziak gora egin du, 600 langabe gehiago dira eta guztira 21.300 langabe.

Lurralde Historikoen arabera, Bizkaian aurreko hiruhilekoan baino 5.000 langabe gutxiago daude, eta langabezia-tasa % 10,4koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,9 puntu txikiagoa. Aitzitik Araban, 16.500 langabe daude, aurreko hiruhilekoan baino 700 langabe gehiago, eta langabezia-tasak ehuneko 0,4 puntu egin du gora, % 10,2ra arte; Gipuzkoan aurreko hiruhilekoan baino 1.100 langabe gehiago daude eta langabezia-tasak 0,3 puntu egin du gora eta % 7koa da.

Hiriburuei dagokienez, Bilbon 1.600 langabe gutxiago daude, eta, aitzitik, Donostian 600 langabe gehiago eta Gasteizen 1.200 langabe gehiago.

EUROSTAT Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, 2019ko abuztuan, Europar Batasunaren osotasunean (28 estatu kide) langabezia-tasa % 6,2koa da eta Espainiakoa % 13,8koa.

Azken urte honetan pertsona landunen kopuruak % 1,4 egin du gora eta langabezia-tasa % 9,5etik % 9,2ra jaitsi da

Euskal Autonomia Erkidegoan landunen kopuruak gora egin du 2018ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta; 13.500 landun gehiago dira, % 1,4 gehiago. Nabarmentzekoa da zerbitzu-sektoreko okupazioaren igoera, 16.800 landun gehiagorekin; gero, eraikuntza dator, 2.900 landun gehiagorekin; aitzitik, lehen sektorean eta industrian okupazioak behera egin du, 1.300 eta 4.900 landun gutxiagorekin, hurrenez hurren.

Langabezia-tasak ehuneko 0,3 puntu egin du behera (% 9,5etik % 9,2ra); hartara, Euskal Autonomia Erkidegoan 2018ko hirugarren hiruhilekoan baino 2.100 langabe gutxiago daude.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen irizpideen arabera, hiruhilekoko batez besteko afiliatuen % 98,4k lana dute

Kalkulatu da Euskal Autonomia Erkidegoan, hiruhilekoan batez beste 884.200 pertsona daudela Gizarte Segurantzari afiliatuta, hori da inkesta egin zen unean Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren eta Gizarte Segurantzari afiliatuta zeuden pertsonen kopurua. Horien % 98,4 landunak dira, Lanaren Nazioarteko Erakundearen irizpideen arabera —biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestan irizpide hori erabili da—. Hartara, 869.800 landun dira.

Biztanleria lanaren arabera sailkatzeko inkestan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera 73.900 landunen % 7,7 ez daude Gizarte Segurantzari afiliatuta, ez baitira Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako enpresetan lanean ari edo funtzionarioen mutualitate publikoetan sartuta baitaude edo beste egoera batean baitaude.

Langabeen % 33,2 ez dira Lanbiden erregistratutako langabe gisa zenbatzen

Zenbatetsi da Euskal Autonomia Erkidegoan, hiruhilekoan batez beste 96.800 langabe daudela erregistratuta Lanbiden, horiek ziren Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren eta inkesta egin zen unean Lanbiden langabezia-kategoria kalifikaturen batean erregistratuta zeuden pertsonak. Horien % 64,6 langabeak dira Lanaren Nazioarteko Erakundearen irizpideen arabera (62.500 pertsona). Biztanleria lanaren arabera sailkatzeko inkestan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera langabeen % 33,2 ez daude langabe gisa erregistratuta Lanbiden (32.200 pertsona), baina erregistratuta egon daitezke enplegu-eskatzailen beste kategoria batzuetan.

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2019/III

	2019/III	2019/II	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.849,6	1.847,3	+2,3	0,1
AKTIBOAK	1.052,2	1.048,2	+4,0	+0,4
Gizonak	549,8	546,8	+3,0	+0,5
Emakumeak	502,4	501,4	+1,0	+0,2
Araba/Álava	162,1	161,0	+1,1	+0,7
Bizkaia	546,5	547,1	-0,6	-0,1
Gipuzkoa	343,6	340,1	+3,5	+1,0
Vitoria-Gasteiz	122,6	121,6	+1,0	+0,8
Bilbao	160,2	161,2	-1,0	-0,6
Donostia / San Sebastián	84,7	83,6	+1,1	+1,3
Beste udalerriak	684,7	681,8	+2,9	+0,4
Espainiarrak	960,7	958,9	+1,8	+0,2
Atzerritarrak	91,6	89,3	+2,3	+2,6
BIZTANLERIA LANDUNA	955,1	947,9	+7,2	+0,8
Gizonak	502,5	499,0	+3,5	+0,7
Emakumeak	452,6	448,9	+3,7	+0,8
Araba/Álava	145,7	145,2	+0,5	+0,3
Bizkaia	489,8	485,5	+4,3	+0,9
Gipuzkoa	319,6	317,2	+2,4	+0,8
Vitoria-Gasteiz	109,5	109,6	-0,1	-0,1
Bilbao	139,4	138,9	+0,5	+0,4
Donostia / San Sebastián	78,7	78,2	+0,5	+0,6
Beste udalerriak	627,4	621,3	+6,1	+1,0
Espainiarrak	884,8	879,3	+5,5	+0,6
Atzerritarrak	70,3	68,6	+1,7	+2,5
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	10,2	9,8	+0,4	+4,1
Industria	202,9	201,4	+1,5	+0,7
Eraikuntza	51,1	52,9	-1,8	-3,4
Zerbitzuak	690,9	683,8	+7,1	+1,0
Soldatakoak	772,9	765,4	+7,5	+1,0
- Kontratu mugagabea dutenak	527,4	524,3	+3,1	+0,6
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	245,4	241,1	+4,3	+1,8
Ez soldatakoak	182,2	182,5	-0,3	-0,2
LANGABEAK	97,1	100,3	-3,2	-3,2
Gizonak	47,4	47,8	-0,4	-0,8
Emakumeak	49,8	52,4	-2,6	-5,0
16 - 24	9,9	9,5	+0,4	+4,2
25 - 44	45,4	45,8	-0,4	-0,9
45 eta gehiago	41,8	44,9	-3,1	-6,9
Araba/Álava	16,5	15,8	+0,7	+4,4
Bizkaia	56,6	61,6	-5,0	-8,1
Gipuzkoa	24,0	22,9	+1,1	+4,8
Vitoria-Gasteiz	13,1	12,0	+1,1	+9,2
Bilbao	20,8	22,4	-1,6	-7,1
Donostia / San Sebastián	6,0	5,4	+0,6	+11,1
Beste udalerriak	57,3	60,5	-3,2	-5,3
Espainiarrak	75,9	79,6	-3,7	-4,6
Atzerritarrak	21,3	20,7	+0,6	+2,9
EZ-AKTIBOAK	797,4	799,1	-1,7	-0,2
ETXEBIZITZAK	893,2	892,7	+0,5	+0,1
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	610,1	604,1	+6,0	+1,0
- Guztiak okupatuak	536,2	530,1	+6,1	+1,2
- Guztiak langabeak	28,1	28,8	-0,7	-2,4
Aktiborik gabeko etxebizitzak	283,1	288,5	-5,4	-1,9

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri lekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

**Biztanleria jardueraren arabera Euskal AEn. Tasa nagusiak (1).
 2019/III**

	2019/III	2019/II	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean (e.p.*)
JARDUERA-TASA	56,9	56,7	+0,2
Gizonak	61,9	61,7	+0,2
Emakumeak	52,2	52,2	+0,0
Araba/Álava	59,3	59,0	+0,3
Bizkaia	56,1	56,2	-0,1
Gipuzkoa	57,1	56,5	+0,6
Vitoria-Gasteiz	60,0	59,6	+0,4
Bilbao	54,3	54,7	-0,4
Donostia / San Sebastián	54,5	54,0	+0,5
Beste udalerriak	57,3	57,1	+0,2
Espainiarrak	55,7	55,6	+0,1
Atzerritarrak	73,5	72,2	+1,3
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	69,2	68,6	+0,6
Gizonak	73,1	72,6	+0,5
Emakumeak	65,3	64,6	+0,7
Araba/Álava	70,0	69,3	+0,7
Bizkaia	67,5	67,1	+0,4
Gipuzkoa	71,5	70,6	+0,9
Vitoria-Gasteiz	70,6	69,9	+0,7
Bilbao	64,6	64,8	-0,2
Donostia / San Sebastián	70,4	70,0	+0,4
Beste udalerriak	69,9	69,1	+0,8
Espainiarrak	70,3	69,7	+0,6
Atzerritarrak	57,8	56,8	+1,0
LANGABEZIA TASA	9,2	9,6	-0,4
Gizonak	8,6	8,7	-0,1
Emakumeak	9,9	10,5	-0,6
16 - 24	20,1	20,6	-0,5
25 - 44	9,4	9,5	-0,1
45 eta gehiago	8,1	8,6	-0,5
Araba/Álava	10,2	9,8	+0,4
Bizkaia	10,4	11,3	-0,9
Gipuzkoa	7,0	6,7	+0,3
Vitoria-Gasteiz	10,7	9,8	+0,9
Bilbao	13,0	13,9	-0,9
Donostia / San Sebastián	7,0	6,5	+0,5
Beste udalerriak	8,4	8,9	-0,5
Espainiarrak	7,9	8,3	-0,4
Atzerritarrak	23,2	23,2	+0,0
EZ-AKTIBOTASUN TASA	43,1	43,3	-0,2

*e.p. = Aldea, ehunekotan

horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea

Donostia kalea, 1. 01010 Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62